

# TXANELA

KONPETENTZIARANTZ BIDERATUTAKO PROIEKTUA

## KONPETENTZIAK LANTZEN

- 1 Pentsatzen eta ikasten ikasi
- 2 Komunikatzen ikasi
- 3 Elkarrekin bizitzen ikasi
- 4 Norbera izaten ikasi
- 5 Egiten eta ekiten ikasi

# 1. SARRERA

## Zer da kompetenzietan oinarritutako hezkuntza?

Zer da kompetenzietan oinarritutako hezkuntza?

Kompetenzietan oinarritutako curriculumak ohiko curriculum akademikoaren ordezkia izan nahi du, *jakitearen* logikatik *egiten eta erabiltzen jakitearen* logikara igaro nahi duena; murriztu egin nahi ditu teoriaren eta praktikaren arteko banaketa edo jakintzaren eta ekintzaren artekoa.

*Oinarritzko kompetentzia* kontzeptuak garrantzizko ñabardura eranstean dio *kompetentzia* kontzeptuari. Ez da aski ikaslea kompetentzia izatea; aitzitik, ikasleak ezinbestekoa du bizitza osorako oinarritzko, garrantzizko eta ezinbesteko kompetentziak bereganatzea.

Txanelaren helburua ikasle guztiak bizitzarako beharrezkoak dituzten oinarritzko kompetentziak lortuko dituztela bermatzea da, eta baita bizikidetzara erraztuko duten oinarritzko erreferentzia komun batzuk ere.

## Zein dira garatu beharreko hezkuntza kompetentzia orokorrak?

Ikasleak bizitza osorako baliagarriak izango zaizkion oinarriak jaso eta garatu behar ditu bere eskolaldian: hainbat **ezagutza** eta **gaitasun**. Baina ez hori bakarrik: ezagutza eta gaitasun horiek egoera jakinetan **erabiltzen ikasi** eta **trebatu** beharko du. Ezagutzak eta gaitasunak egoera jakinetan erabiltzeko gai izateari **kompetentzia** deituko diogu.

Hona hemen bost **Hezkuntza Kompetentzia Orokorrak** eta bakoitzari dagozkion **azpikompetentziak** labur azalduta.

### 1 Pentsatzen eta ikasten ikasi

- 1.1 Informazioaren interpretazioa: ulermenean oinarritutako pentsamendua
- 1.2 Informazioa sortzea: pentsamendu sortzailea
- 1.3 Informazioaren ebaluazioa: pentsamendu kritikoa
- 1.4 Erabakiak hartzea
- 1.5 Arazoak konpontzea
- 1.6 Baliabide kognitiboaren erabilera

### 2 Komunikatzen ikasi

- 2.1 Ahozko hizkuntza
- 2.2 Hizkuntza idatzia
- 2.3 Beste hizkuntza batzuk
- 2.4 Gizarte-komunikabideen baliabideak
- 2.5 Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT)
- 2.6 Kontzientzia sozio-komunikatiboa

### 3 Elkarrekin bizitzen ikasi

- 3.1 Pertsonen arteko harremanak
- 3.2 Gatazkak konpondu
- 3.3 Parte-hartze demokratikoa
- 3.4 Elkarlana eta talde-lana
- 3.5 Aniztasuna

### 4 Norbera izaten ikasi

- 4.1 Norberaren gorpuztasuna
- 4.2 Norberaren kontrola eta oreka emozionala
- 4.3 Nork bere buruaren estimua
- 4.4 Autonomia
- 4.5 Sentsibiltate estetikoa
- 4.6 Integrazio pertsonala

### 5 Egiten eta ekiten ikasi

- 5.1 Analisia: informazioa jasotzea eta gordetzea
- 5.2 Sormena: ideia berriak eta konponbideak lantzea
- 5.3 Berrikuntza: ideiak gauzatzea
- 5.4 Ebaluazioa
- 5.5 Ekite prozesuaren aplikazioa eta xehetasunak

## 2. TXANELA PROIEKTUAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

### Zein dira ikasleek lantzen dituzten hezkuntza kompetentziak *Txanela* proiektuaren bitartez?

1. Euskara eta euskal kultura ardatz hartuz, ele-aniztasunari eta kultura unibertsalari so dago *Txanela* proiektua.
2. Euskarri anitez osaturiko diseinu erakargarria du, aniztasuna kudeatzeko aproposa.
3. Hauxe da *Txanela* proiektuari dagokionez zein den hezkuntzan erabiliko den **esku-hartzea** eta **metodologia**:

- Esku-hartze kontzientea, programatua, etengabekoa eta ebaluagarria du.
- Arloak era integratuan lantzen dira eta ikuspegi globalizatua eta eraikitzailea dute.
- Elkarrekin garatutako aprendizaiaren eraikuntza. Ikastaldeen kudeaketa era askotakoa bultzatzen da (lan kooperatiboa, elkarlana, bakarkako lana...).
- Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza esanguratsua eta funtzionala du. Ikaslea aprendizaiaren protagonista da. Ekinez ikastea bultzatzen du, autonomia garatuz eta erabakiak hartuz.
- Prozesua nagusi duela, emaitza irekiak eta anitzak onartzen dituen lan proposamenak ditu.

- Hainbat estrategia erabiltzeko eta partekatzeko proposamenak ditu: kognitiboak, komunikatiboak, ekimenari dagozkionak, emozionalak, elkarbizitzari dagozkionak...
- Prozesu kognitiboak, adimena eta portaera arautzeko prozesuak lantzen ditu sistematikoki (autoerregulazioa bideratzen du).

4. Horrela lantzen da komuni-  
kazioa *Txanela* proiektuan:  
A) Hizkuntzari dagokionez,  
B) IKTari dagokionez, eta  
C) Beste hizkuntza motei  
dagozkionez.

#### A) Hizkuntzari dagokionez:

- Hizkuntza lantzen da bai ohiko komunikazio-egoera informalean eta bat-batekoetan, bai erabilera gero eta landuagoak eta formagoak behar dituzten komunikazio egoeretan ere.
- Hainbat erabilera-eremutako ahozko zein idatzizko testu-generoen ulermen eta ekoizpen prozesuak bideratzeko baliabideak eta estrategiak lantzen dira era partekatu eta sistematikoan.
- Ikus-entzunezko hizkuntza ezagutzen eta erabiltzen lehen urratsak ematen dira.
- Hausnarketa sozio-komunikatiboa eta kontzientzia mediatikoa (mezuen interpretazio kritikoa eta hedabideen eta euskarri telematikoen erabileraren erantzukizuna) hartzen hastea bultzatzen dira.

#### B) IKTari dagokionez:

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera integratzen du (IKTak) eta baita komunikatzen ikasteko baliabideak ere: sistema informatikoaren kontrola, informazioaren kudeaketa eraginkorra, informazioaren eta ezagutzaren komunikazioa eta elkartrukea, informazioa prozesatzea eta edizioa, IKT baliabideen erabilera irekia eta arduratsua, ezagutza eraikitzea eta problemak ebaztea, *txanela.net* webgunearen erabilera...

#### C) Beste hizkuntza motei dagokionez:

- Hizkuntza artistikoak lantzen ditu: hizkuntza plastikoa, musikaren bidezko hizkuntza, dramatizazioa.
- Hizkuntza matematikoa eta hizkuntza zientifikoa lantzen ditu: zenbakizko hizkuntza, hizkuntza grafikoa, sinbolikoa...

5. Hauxe da *Txanela* proiektuari dagokionez balioen eta jarreraren hezkuntzarekin dituen konpromisoak:

- *Txanela* proiektuak egoerak proposatzen ditu arazoak estrategikoki eta demokratikoki ebazteko, emozioak erregulatzeko eta kontrolatzeko, negoziatorako, pentsaera gogoetsua garatzeko...
- Pertsonarteko harremanetan ematen diren oinarrizko konbentzioak, entzute aktiboa, empatia, kontzientzia emozionala, aserti-

bitatea, prosozialtasuna, errespetua, elkartasuna, partekatzea... aztertuz eta praktikan jartzeko egoerak sustatzen ditu.

- Aniztasunari dagokionez, besteak onartzea eta balioestea, gaitasun kritikoa izatea bazterkeriaren aurrean eta tolerantzia aktiboa bultzatzen ditu.
- Norbere buruari begira, *Txanela* proiektuak norberaren gorputzaren onarpena, osasunari buruzko ardura eta ohitura osasungarriak bultzatzen ditu.
- Bestalde, bide berean lantzen ditu beste puntu hauek ere: norberaren kontrola, oreka emozionala, estimua, autonomia, sensibilitate estetikoa eta eguneroko elkarreagineta eta egoera jakinetan integrazio pertsonala.

## 3. IKASLEENTZAKO PROIEKTU DIDAKTIKOEN ETA IKASARLOEN ARTEKO ERLAZIOA, MAILAZ MAILA

Laugarren ataleko taulak hainbat erlazio erakutsiko dizkizu, horien artean nola integratzen diren ikasarloak material globalizatuko proiektu nagusietan.

Horrez gain, kontuan izan bi ohar hauek:

- Berriaz horretarako ipinitako jardueraz gain, **Hizkuntza** arloa era globalizatuan eta diziplinartekoan arlo gisa lantzen da proiektu eta unitate guztietan.
- **Hiritartasunerako Hezkuntza** unitateetan eta proiektuen garapenean zehar era globalizatuan lantzen da, diziplinarteko gisa; erabateko harremana du *Elkarrekin bizitzen ikasi* eta *Norbera izaten ikasi* konpetentzien lanketarekin, beste konpetentziekin duen lotura baztertu gabe.

Ikasarloek honako kolore hauek dituzte 4. ataleko taula orokorrean:

• <b>HIZKUNTZA</b>	
• <b>INGURUNE FISIKO ETA SOZIALA:</b>	
• NATURAREN ETA OSASUNAREN ARLOA	
- EKOLOGIA	
- OSASUNA	
- LABORATEGIA	
• GIZARTE ARLOA	
• <b>MUSIKA ETA DRAMATIZAZIOA:</b>	
• <b>PLASTIKA:</b>	
• <b>HIRITARTASUNA:</b>	*

## 4.

## IKASLEENTZAKO PROIEKTU DIDAKTIKO NAGUSIEN BANAKETA MATERIAL GLOBALIZATUAN

MAILA --> UNITATEA / PROIEKTUA	1.	2.	3.	4.	5.	6.
1	Gelaren antolaketa	Nire historia	Herriko zerbitzuen horma-irudia: osatu eta txikiagoei aurkeztu	Eskualdea ezagutzen: ibilbidea osatu eta gauzatu	Ipuina idatzi eta aurkeztu *	Abentura-ipuina sortu eta aurkeztu *
2	Denboraren makina	Herriaren sorrera: azterketa eta erakusketa	Egiptoko maketa	Ikuskizuna: amerindiarrak	Ikuskizuna: Euskal Herria *	Europar bidaiatuz: power-pointa *
3	Dinosauroen garaiko maketa	Itsasoko animalien bilduma	Prebentzio-kanpaina	Osasuna eta kirolaren astea	Erakusketa (artelanak eta erreportajeak) *	Pertsona ezagutu eta esploratze-ko esperientziaz *
4	Lehen gizakia: ikuskizuna	Eguzki-sistemako planetak: zintzilarioak	Antzerki edo txotxongilo emanaldia	Ipuinen irakurketa dramatikoak	Pintxoak prestatu, azalpenak eman eta hamaiketako egin *	Antzerki-muntaketa *
5	Elikadura osasuntsua : hamaiketako edo askaria antolatu	Artelanak birziklatutako materialekin	Laborategia: haizea eta airea aztertu, horma-irudia osatu	Laborategia: ura aztertu eta ondorioen panela osatu	Jendaurreko irakurketa-saioa *	Materiari buruzko lan monografikoa *
6	Ikastolako olinpiadak antolatu.	Irratsaioa	Inguruko ekosistemak baten azterketa eta aurkezpena	Argibideen horma-irudiak	Bizidun bati buruzko lan monografikoa *	DBHkoei elkarriketa. LHra datozen ikasleei Txanela aurkeztea *
7	Parkea aztertu eta aldizkaria osatu	Ibilbide bat egin ondoren, koadernotxo osatu	Ikuskizuna: bertsoak, dantzak eta kantak	Zikloko lanen karpeta		
8		Ikuskizuna: zikloko abesti, olerki eta dantzak				